

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

#### Udaleko lanpostuen zerrenda aldatzea

Lanpostu zerrenda tresna bat da, zeinaren bidez administrazio publikoak bere barne egiturak arrazionalizatu eta antolatu, langileen beharrak zehaztu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak definitu eta haietako bakoitza sailkatzen baititu.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, zeinak onesten baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, 74. artikuluan xedatzen du, administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabilita egituratuko dutela beren antolamendua.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18.1 artikulua xedatzen du lanpostu zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko direla lanpostuak.

Aintzat hartu da Arabako Mendialdeko Kuadrilako Euskara teknikariak 2022ko martxoaren 8an emandako aldeko txostena.

Aintzat hartu da Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren nahitaezko txostena, 2022ko martxoaren 17koa eta apirilaren 20koa.

Aintzat hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.i artikulua.

Horiek horrela, Arraia-Maeztuko Udalak, 2022ko apirilaren 25eko osoko bilkura berezian, hau erabaki zuen:

Lehenengoa. Lanpostu zerrendaren aldaketa hauek egitea:

#### **Karrerako funtzionarioak**

Lanpostuaren izena: Idazkari-kontuhartzailea.

Hizkuntza eskakizuna: 3.

Derrigortasun data: datarik gabe.

Lanpostuaren izena: administraria.

Hizkuntza eskakizuna: 3.

Derrigortasun data: 2022ko apirilaren 25a.

#### **Langile lan kontratudunak**

Lanpostuaren izena: garbiketa arduraduna.

Hizkuntza eskakizuna: 1.

Derrigortasun data: datarik gabe.

Bigarrena. Aldaketa honek onesten denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Erabaki hau Arabako Foru Aldundiko Toki Administrazioaren eta Lurralde Ore-karen Sailari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari jakinaraztea.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Maeztu, 2022ko maiatzaren 3a

*Alkate-lehendakaria*

**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**